

Actuaciones hacia la mejora de la ganadería extensiva en el valle de Karrantza y entorno (Bizkaia) en relación con los daños y riesgos por predación de lobo.

PROYECTO 30-2016-00017

Actuaciones hacia la mejora de la ganadería extensiva en el valle de Karrantza y entorno (Bizkaia) en relación con los daños y riesgos por predación de lobo

## GRUPO OPERATIVO GANADERÍA-LOBO



**crn**  
Consultora  
de Recursos Naturales, s.l.

**neiker**  
tecnalia

**Lorra**  
koop.



## Proyecto LOBOGAN

### LABURPEN EXEKUTIBOA



Fondo Europeo de Desarrollo Rural:  
Europa invierte en las zonas rurales



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN  
ETA AZPIEGITURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

Proyecto financiado por el Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras de Gobierno Vasco y el Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER) de la Unión Europea (nº de expediente 30-2016-00017)

**Diciembre 2018**



**crn**  
Consultora  
de Recursos Naturales, s.l.

**neiker**  
tecnalia

**Lorra**  
koop.



Actuaciones hacia la mejora de la ganadería extensiva en el valle de Karrantza y entorno (Bizkaia) en relación con los daños y riesgos por predación de lobo

Resumen ejecutivo del proyecto LOBOGAN

**Coordinación general-Líder del Grupo Operativo** (Consultora de Recursos Naturales, S.L.)

Mario Sáenz de Buruaga Tomillo

**Equipo técnico**

**Consultora de Recursos Naturales, S.L.**

Miguel Ángel Campos Marcos

Gaizka Calvete Larrauri

Felipe Canales Basabe

Nieves Navamuel Muñoz

Aroa Albareda Martínez

**Lorra, S. Koop.**

Karlos Mas Bilbao

Jagoba Batiz Lejarza

**Neiker-Tecnalia**

Roberto Ruiz Santos

Raquel Atxaerandio Galdós

Xabier Díaz de Otálora Aguirre

Iker Bilbao Guerrero

Nerea Mandaluniz Astigarraga

**A.D.R. Enkarterrialde**

Jesús Gómez Moro

**Equipo administrativo**

**Consultora de Recursos Naturales, S.L.**

Begoña Gómez Gil

María Jesús Ascariz Gayoso

**Neiker-Tecnalia**

Idoia Ziluaga Amigó



Actuaciones hacia la mejora de la ganadería extensiva en el valle de Karrantza y entorno (Bizkaia) en relación con los daños y riesgos por predación de lobo.

**PROYECTO 30-2016-00017**

---

**Lorra, S. Koop.**

**A.D.R. Enkarterrialde**

---

Isabel Gárate Alberdi

---

Arantza Suso Romero

Elsa Fernández Hoyos

**Equipo de campo para la vigilancia mancomunada**

**Consultora de Recursos Naturales, S.L.**

**Consultora de Recursos Naturales, S.L.**

---

Álvaro Arnaiz Barreras (2017 y 2018)

---

Josu Galdós Herboso (2017)

Urko Barreras Edesa (2017)

Julián González Portillo (2018)



**crn**  
Consultora  
de Recursos Naturales, S.L.

**neiker**  
tecnología

**Lorra**



## **LABURPEN EXEKUTIBOA**

2016an, Europar Parlamentuaren eta abenduaren 17ko Kontseiluaren 1305/2013 araudian eta 2015-2020 Landa Garapenerako Programan aurreikusitako laguntza deialdira proiektu bat aurkeztu zuten lau entitatek, "Abeltzaintza-otsoa" talde operatibopean. 2015-2020 EAEko Landa Garapenerako Planan jasotakoaren arabera, laguntza hauek batera finantziatzen dituzte Batasuneko LGENF funtsek (%80a) eta Euskal Autonomia Erkidegoak (%20a).

Proiektu piloto honek abeltzaintza estentsiboak otsoarekiko duen zaugarritasuna murrizten duten mekanismoen ezarpena bilatzen zuen, espezie honen eta abeltzaintza-jardueraren arteko elkarbizitza sustatuz.

Lan-eremua Bizkaian kokatuta dagoen Karrantza Harana eta bere ingurua da, Natura 2000 sarean dauden bi naturagune hartzen dituena: Ordunte KBE (ES2130002) eta Armañon KBE (ES2130001), azken hau, gainera, Parke Naturala izanda. NUTS nomenklaturaren arabera, ikerketa-eremua ES213 esparruaren barruan dago. Azken urteetan, abereen kontrako otsoen erasoek garrantzi handia hartu dute inguru honetan.

Lan eta entsegu arloak, hauetako batzuk berritzaileak ikerketa-eremu honetan, hurrengoak izan ziren:

- a) Abeltzaintza estentsiboaren elkarren arteko zaintza profesionala.
- b) Abereen defentsa, behi-abereena bereziki, artzakurren bitartez.
- c) Artzakurren eta abereen GPS kokapen-gailuen proba.
- d) Zonaldean merkaturatzen diren produktuak (esnea, gazta eta haragia nagusiki, eta egurra eta eztia bigarren maila batean), otsoen presentzia eta abeltzaintza estentsiboarekin erlazionatzen duten aukera tekniko eta ekonomikoen azterketa, leku hauetan larratzen duten ganadutegietan otsoak balio gehigarria suposatzen duela iradokituz.

Proiektuaren landa-fasea 2017. urteko otsailan hasi zen eta 2018. urteko abenduan bukatu zen. Abeltzaintza estentsiboko 17 ustiatagiren parte hartze aktiboa egon da.



**PROYECTO 30-2016-00017**

---

Elkarren arteko zaintzari dagokionez, 2.349 lan ordu eman dira 291 jardunaldietan zehar, bi fasetan burutu direnak:

- a) I. fasea: 2017ko irala eta urriaren artean, 4 pertsonak bere zerbitzuak eskaini zituzten 26 astetan zehar.
- b) II. fasea: 2018ko martxoaren eta abuztuaren artean 2 pertsonak bere zerbitzuak eskeini zituzten 38 astetan zehar.

Zaintza-txakurrei dagokionez, kalitate altuko 10 artzakur-kume entregatu ziren 9 ustiategitan, 6 ar eta 4 eme. Txakur guztiek ustiategietara esperientziarekin heldu ziren (6 behi-azienden defentsara bideratu ziren eta 4 abere xehearen defentsara) eta, aurretik, albaitaritzaz-azterketa pasa zuten. Artzakurrek identifikazio-baldintza ofizialak bete behar zituzten (microchip baten ezarpena eta EAEko Animaliak Identifikatzeko Erregistroan izen ematea) eta Erantzunkizun Zibileko aseguruia izan behar zuten, 150.000 €/ezbehar-ko estaldura minimoarekin. Ustegiategira entregatu arte txakurrak eragindako kostu guztiak proiektuak ordaindu zituen. Talde operatiboak artzakurren etengabeko jarraipena egin zuen. Entregatutako txakurretan %40-ko hilkortasuna egon zen (2 ar eta 2 eme), eta bi erditze gauzatu ziren. Txakur-hartzaile ustegiategien asebetetze maila ertaina-altua bezala kalifikatu zen, txakurren gaztetasunak bere lan-potentzial osoaren garapena ekidin arren.

Abereen GPS kokapen-gailuei dagokionez, 20 gailu 14 ustegiategien eskuetan jarri ziren 2017. urtean eta 27 gailu 2018an. Lehenengo urtean eraginkortasun txikia erakutsi zuten, seinalearen estaldura egokia ez zelako. 2018an, sistema aldatu zen (gailuek 2G teknologia erabili zuten), estaldura-maila asko hobetuz (gailuen %96,3 ondo funtzionatu zuen). Arlo honetan, ustiategien asebetetze-maila oso altua izan zen eta erabilgarriak izan ziren proiektuko artzakur batzuek eragindako arazo batzuk argitzeko.

LOBOGAN taldeak nekazaritza eta ingurumen zerbitzuen ordainketa programa bat diseinatu zuen, otsoaren erasoak jasateko arriskua duten eremuen larratzearen bidezko lurralde kudeaketarekin konpromisoa hartzen duten ustiategiei zuzenduta. Otso-inguruetan abeltzaintza jarduera mantentzen duten esplotazioei laguntza-aukerak aztertuz diseinatu zen, lurraldearen kudeaketan oinarritutako ustiategien jasagarritasuna lortzeko zuzenduta, eraso-gertaerek



sortutako gatazkak gutxitzeko eta fauna iberikoaren espezie garrantzitsu baten eta abeltzaintza estentsiboaren elkarbizitza errazteko asmoz. Larreko habitaten eta biodibertsitatearen kontserbaziorako balio ekologiko altuko espezieen babesa areagotzea bilatzen zen eta, era berean, larreen degradazioa ekiditea.

LOBOGAN proiektua ustiatzei eta elkarren arteko zaintzan ibilitako langileei zuzendutako hezkuntza-jarduerekin biribildu zen eta proiektua foro ezberdinetan zabaldu zen, bai zientifikoak (SECEMeko XIII Kongresua, EAAP 69th Annual Meeting y Ipar-Amerikan eta European Otsoaren kudeaketa eta kontserbazioaren nazioarteko kongresua) bai prentsan eta telebistan. Interneten ezagutzera eman zen proiektua talde operatiboaren liderraren web orrian informazioa eskeiniz, eta EIP AGRI Sarearen bidez. Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila eta Ararteko (Euskadiko Herriaren Defendatzailea) puntualki informatuta egon dira.

